



2017ko Pertsona Gorren Nazioarteko Egunaren CNSE-ren Manifestua

“Zeinu Hizkuntza: oinarrizko eta giza eskubidea”

Irailaren 30ean Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna ospatzen da Espainian. Pertsona gorren aniztasuna baita gure errealitatea agerian jartzeko aukera da. Gure bizitzak egunero eragozten dituzten aurreiritziek eta oztopo ugari agerian jartzeko. Baina pertsona gorrek lortutakoa, nolakoak garen eta zer egiteko gai garela munduari erakusteko ere bai.

Gortasunak ez gaitu mugatzen. Ez gaitu ikaritzen. Aurreiritziek, eta oraindik dirauten pertsona gorren aurkako estereotipoek dira gure aukerak murrizten dizkigutenek. Gorrak izateagatik diskriminazio handiak jasaten ditugun mundo honetan bizi gara: besteak beste, hezkuntzan, lan arloan, zeinu hizkuntzaren erabileran, justizian, gizarte eta osasun zerbitzuetarako sarbidean, hedabideetan, kulturean... Nahiz eta aurrerapenak izan, pertsona gorrek oraindik ez daukagu eskubideen berdintasunik. Gaur egun eskubideei iristea, non bizi garen mende dago.

Pertsona gorrek ezberdinak gara. Gure komunikatzeko erak, adinak, jatorriak, interesak eta nahiak anitzak dira. Baina edonor bezain trebeak gara guztiok. Lan egiteko, maite izateko, zaintzeko, hezitzeko, ikasteko, gizarteari emateko eta oparotasuna sortzeko gai gara. Geuk garen bezalakoa bizitzeko gai gara.

Espainian zeinu hizkuntza erabiltzen dugunok hizkuntza eta kultura komunitate baten partaideak gara, beste edozein bezain baloizkoa eta beharrezkoa dela. Eta aintzat hartzea nahi dugu. Zeinu hizkuntza erabiltzen ditugun pertsona gor eta gor-itsuentzat geure hizkuntza aukera bat baino gehiago da. Behar bat da. Oinarrizko eta giza eskubide bat da!

Urriaren 23ko 27/2007 Legea promulgatu zenetik 10 urte pasa dira jada. Espainian zeinu hizkuntza aitortu zen lehenengo aldiz, hainbat hamarkada



aldarrikapen gogorretan ibili eta gero. Legeak, gainerako herritarren baldintza berdinekin geure erabateko partaidatzea bermatzeko hitz eman zuen. Hain irrikatutako legea izan arren oraindik ez da guztiz garatu.

CNSE-k Estatuko Pertsona Gorren Konfederazioak, eta gure elkarten sareak lege hau betetzea eskatzen dugu. Estatuak legea gauzatzea, autonomi-erkidego guztietan aurrekontu nahikoekin neurri berean garatua izatea. 27/2007 Legea garatuko duen arautegia erabilgarria eta onuragarria izatea eskatzen dugu. Pertsona gor eta gor-itsuen komunikazio eta informazio irisgarritasun baldintzak benetan hobe ditzan. Zeinu hizkuntza babestea eta sustatzea kulturarako hizkuntza dela eta. Herrialde guztientzako erreferentea izatea eta diru kopuru duina izan dezan, neurri guztiak gauzatuko dituztela ziurtzeko.

Horregatik, Pertsona Gorren Nazioarteko Egunean hau aldarrikatzen dugu:

- Pertsona gorak eta gure familiak zeinu hizkuntza ikasteko eskubidea bermatzea autonomi-erkidego guztietan.
- Haur gorak arreta goiztiarra integrala, zeinu hizkuntza barne, edukitzeko aukera ez eragozte.
- Pertsona gorren familienganako arreta programa zabalak bideratzea, haien behar guztiak erantzuten, komunikazio eta hezkuntza aukera guztiak eta errespetatzen. Osasun, gizarte zerbitzuak eta hezkuntza arloetatik objektiboki eta aurreiritzak baztertzen, aukera guztiei buruzko informazioa ematea.
- Zeinu hizkuntza ikasle gorrentzako curriculum eta irakas-hizkuntza gisa barneratzen duen hezkuntza nahi dugu. Irakasle gorak ere dauzkana. Zein aukera-askatasuna erabili ahal izateko, aukerak eduki behar ditugu!



- Hizkuntza koofizialak baita atzerritakoak ikasi ahal izatea. Heziketa zentroetan, hizkuntz eskola ofizial edota pribatuetan. Irisgarritasuna erraztea, curriculuma gure beharrianetara egokitzea titulu eta ziurtagiri ofizialatarako sarbidea kaltetu barik.
- Ikasturte lehenengo egunetik zeinu hizkuntza interpreteak edukitzea, unibertsitateetan baita institutoetan, eskola-ordu guztietan, behar ditugun egokitzapen teknikoak baita ere. Ikasle gorrentzako irisgarritasunari urtero oztopak jarri, akabo!
- Enplegu-zentru berezietatik kanpo lanpostua lortzeko eskubidea. Enpresa arruntetan ere lan egin nahi dugu. Pertsona gorrak izateagatik sailkapen gehiagorik ez!
- Lanpostua eta soldata duinaren alde, pertsona gorrak geure trebetasun guztiak erakus ditzakegu. Aniztasuna errespetatzen duen lanpostuetan mailaz igo egiteko aukeraren alde. Non informazioa eta komunikazioa geuretzat irisgarriak diren lan-ingurunaren alde!
- Enplegurako ta etengabeko prestakuntzara sarrera osoaren alde. Aski da oztopoak jartzen! Hezitzeko aukera profesionalki eta pertsonalki, Aurrera egin ahal izatea eskatzen dugu. Pertsona gorrak gizarte barnean subjektu aktiboak eta ahaldunduak izateko, prestakuntzan irisgarritasun osoa ezinbestekoa da.
- Zeinu hizkuntzan espezialistak diren 394 profesional gor eta gor-itsuen aintzatesperaren alde. Haien duintasun profesionalaren alde, haien lanpostuak mantentzearen alde. Zeinu hizkuntza irakatsiz eta zabalduz egiten duen lana aitortzea justizia dela eta!
- Pertsona gorren komunikazio aniztasuna eta beharrianen arabera edozein zerbitzuko (zahar-etxeak, eguneko zentroak, buru osasuna, abegi-etxeak...) informazio eta komunikaziorako sarbidea.



- Zeinu hizkuntza interpretazio eta bideo-interpretazio zerbitzuak dohainik eta kalitatezkoak edukitzea, bizitzaren edozein arlotan.
- Pertsona gorra audifonoak eta inplante koklearrak eskuratu ahal izatea ziurtatzea, haien familien egoera ekonomikoa oztopoa izan ez dezan.
- Emakume gorren errealitatea genero-indarkeriaren aurkako babes, zalaketa eta arreta protokoloetan barneratzea. Biktima eta salatzaileen komunikazio irisgarritasuna beti bermatzen.
- Gizartean, politikan, kulturean, eta ekonomian, herrialdeko bizitzan egotea eskatzen dugu; aisialde eta arte esparru inklusiboak gozatzea, zeinu hizkuntzaz ere; kalitatezko azpiztituluekiko telebista erabat irisgarria, zeinu hizkuntza ordu asko gehiagorekin programazioan sartuta, antzerki eta zinema irisgarriak eskatzen ditugu.
- Geure hizkuntza, zeinu hizkuntza, Espainako Konstituzioan sartuta nahi dugu. Herrialdeko beste hizkuntz bezala, gizarte ta hizkuntzen artean daukan lekua, prestigioa eta estatusa hobetzeko.
- Zeinu hizkuntza ikasteko eta edozein arlotan erabiltzeko eskubidea errespetatzea.
- Espainan zeinu hizkuntza kultura intereseko ondare ez-materiala aitortzea. Geure hizkuntza eta tradizioak... Kultura baitira!

Aski da ulertezintasunaz. Aski da estereotipoaz, borondate eza eta utzikieriaz. Aski da gu gerorako uzteaz. Orainaldiak arduratzen gaitu. Justizia, aukerak eta berdintasun-orainaldi bat.

PERTSONA GORRAK GARA. Ezagu gaitzazu. Entzun gaitzazu.